

5. ildoak: AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI AGIRIA LORTZEKO EUSKARAZKO IKASTAROETARAKO DIRULAGUNTZAK

1. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA

- Aisialdiko begirale agiria lortzeko ikastaroak.
- Aisialdiko zuzendari agiria lortzeko ikastaroak.

2. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Getxon erroldatuta egotea.
- Ikastaroek euskaraz beharko dute izan eta eskatzaileak horretarako, hau da, ikastaroa jarraitu ahal izateko behar den euskara maila egokia beharko du izan.
- Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastegiak eman behar dituzte ikastaroak.

3. ORDAINKETA MODUA

- Baldintzak betetzen dituztenei ikastaroaren %50erainoko dirulaguntza emango zaie. Agiria lortzeko ikastaroak bi ikasturteetan egiten dituztenei ikastaro bakoitzarengatik %50erainoko laguntza emango zaie.
- Eskaerak aurkeztu ahal izango dira baina derrigor eskaera aurkezten duenean eskatzaileak ikastaroa amaitua behar du izan eta Jaurlaritzaren agiri ofiziala duela ziurtatu.
- Jaurlaritzaren agiri ofizialak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan lortutakoa beharko du izan; ez da onartuko aurreko ikasturteetan (adibidez, 2021-2022 ikasturtean) lortutako agiriarengatik eskaerarik.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

01.- Ikastaroko matrikularen ordainagiri originala(k).

02.- Agiri ofiziala: Eusko Jaurlaritzak luzatutako aisialdiko begirale edo zuzendari agiri ofizialaren kopia.

03.- Praktikak elkarte batean egin izana adierazten duen ziurtagiria.

04 eta 05.- Ziurtagiriak: Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekin zorrak ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko ditu ziurtagiri hauek.

Getxoko Udalarekin zorrak ez izatea ere konprobatuko du Euskara Zerbitzuak.